

BESTELAKO XEDAPENAK

GARAPENERAKO LANKIDETZAREN EUSKAL AGENTZIA

4070

EBAZPENA, 2019ko uztailaren 29koa, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziako zuzendariarena, lankidetz-erakundeei laguntzak emateko deialdia egiteko dena, 2022. urterako genero-berdintasunaren aldeko antolamendu-aldaketarako prozesuak sustatzeko.

Martxoaren 27ko 40/2018 Dekretuak (2018ko apirilaren 9ko EHAA, 67. zk.) lankidetz-erakundeei eman beharreko laguntzak arautzen ditu, erakundeotan genero-berdintasunaren aldeko antolaketa -aldaketako prozesuak sustatzeko.

Dekretu horren 12. artikuluan xedatutakoarekin bat, bidezko da lankidetz-erakundeei eman beharreko laguntzetarako deialdia egitea, 2022. urterako genero-berdintasunaren aldeko antolamendu-aldaketarako prozesuak susta ditzaten.

Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren Kontseilu Errektoreak, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentzia sortu eta arautzen duen ekainaren 9ko 5/2008 Legearen 10.b) artikuluan ematen zaizkion eskumenez baliaturik, 2022ko urtarrilaren 25eko bileran, erabaki zuen Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziako zuzendariari proposatzea dirulaguntza-deialdia abiaraztea, eta dirulaguntzak emateko oinarritzko irizpideak onartu zituen.

Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren 2022rako Dirulaguntzen Plan Estrategikoaren barruan dago deialdi hau. Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren Kontseilu Errektoreak onartu zuen plan hori, 2022ko martxoaren 21ean egindako bileran, eta Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren webgunean dago argitaratuta.

Hori dela-eta, honako hau

EBAZTEN DUT:

1. artikulua.– Xedea.

Ebazpen honen bidez, lankidetz-erakundeentzako 2022ko ekitaldirako laguntzetarako deialdia egiten da, genero-berdintasunaren aldeko antolamendu-aldaketako prozesuak sustatzeko. Laguntza horiek genero-berdintasunaren aldeko antolaketa-aldaketako prozesuak bultzatzeko lankidetz-erakundeei eman beharreko laguntzak arautzen dituen martxoaren 27ko 40/2018 Dekretuan aurreikusita daude.

2. artikulua.– Diru-zuzkidura.

1.– 433.000 eurokoa izango da deialdi honetako laguntzak finantzatzeko ezarritako zuzkidura ekonomikoa.

2.– Diruz lagundu daitezkeen faseetariko bakoitzerako jarritako diru-zuzkidura hau da:

a) Generoaren partaidetza-diagnostikoa egitea eta genero-berdintasunaren aldeko ekintza-plan estrategikoa prestatzea: 210.000 euro.

b) Genero-berdintasunaren aldeko ekintza-plan estrategikoa prestatzea: 16.000 euro.

c) Genero-berdintasunaren aldeko ekintza-plan estrategikoa ezartzea eta ondoren plana ebaluatzea. 200.000 euro.

d) Genero-berdintasunaren aldeko ekintza-plan estrategikoaren ezarpena ebaluatzea: 7.000 euro.

3. artikulua.– Eskabideak aurkezteko eta formalizatzeko epea.

1.– Eskabideak aurkezteko epea hilabetekoa izango da, ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunaren biharamunetik hasita, eta epemuga-hilean argitaratzen den egun berean amaituko da. Epemuga-hilean ez badago epea hasi den egunaren baliokiderik, hilaren azken egunean bukatuko da epea.

2.– Dirulaguntza jaso ahal izango dute, gehienez ere bi fasetan, baldintza hauen arabera:

a) Generoaren partaidetza-diagnostikoa egitea eta genero-berdintasunaren aldeko ekintza-plan estrategikoa prestatzea.

b) Genero-berdintasunaren aldeko ekintza-plan estrategikoa ezartzea eta ondoren plana ebaluatzea.

3.– Agindu honen ondoriozko eskabideak, errekerimenduak, jakinarazpenak eta gainerako kudeaketak bitarteko elektronikoz bakarrik egingo dira.

4.– Eskaera-orria eskuratzeko eta betetzeko, www.euskadi.eus egoitza elektronikora jo beharko da; Dirulaguntzak atalera, zehazki.

5.– Egoitza elektronikoa horretan egongo dira eskuragai elektronikoki nola izapidetu behar den argitzeko zehaztapenak, bai eta eskaera-orria ere. Laguntzari buruzko informazio gehiago nahi izanez gero, www.euskadi.eus webgunean eskuratu ahal izango da, laguntzen eta dirulaguntzen atalean.

6.– Entitate interesduna espedientean sartzeko, dokumentazioa aurkezteko eta zuzenketak, jakinarazpenak eta prozedura honekin lotutako gainerako izapideak egiteko, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoko «Nire karpeta» aplikazioa baliatu behar da (<https://www.euskadi.eus/nire-karpeta/web01-sede/eu/>)

7.– Eskabidearekin batera, erakunde eskatzailea ordezkatzeko legezko gaitasuna duen pertsonaren edo erakundearen sinadura elektronikoa aitortuaz gain, harekin batera aurkeztu beharreko agiri guztiak eta Administrazioak Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legean xedatutakoaren arabera eska ditzakeenak ere aurkeztu beharko dira.

8.– Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziak, interesdunak baimena eman ondoren, legezko ordezkariaren akreditazioa ofizios begiratu, ziurtatu edo egiaztatuko du administrazio eskudunean. Hala ere, ordezkari bati eman ahal izango zaio, haren izenean elektronikoki jardun dezan ebazpen honi dagozkion jarduketa guztietan, eta, horretarako, aukera hauetako bat erabiliko da:

– Ahalordeen Erregistro Elektronikoa, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoa kokatua (<https://www.euskadi.eus/ordezkaririk/>), edo

– «Borondatezko legezko ordezkari bati egilestea inprimaki normalizatua» (<https://www.euskadi.eus/eusko-jaurjaritza/-/eskabidea/borondatezko-legezko-ordezkaririk-egilestea-inprimaki-normaldua/>), behar bezala formalizatua; eskabidearekin batera aurkeztu beharko da. Pertsona juridikoek

ordezkaritza-ahalordearen kopia, edo ahalorde-emailea erakunde ordezkariaren legeko ordezkari gisa legitimatzen duen legeko zeinahi dokumentu erantsi beharko dute, edo

– Euskal Autonomia Erkidegoko Garapenerako Lankidetzako Eragileen Erregistroa, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoa kokatua (https://www.euskadi.eus/erregistroa/reg_ag_coop/web01-tramite/eu/)

Ordezkariek egoitza elektronikoa horretan onartutako bitarteko bat izan beharko du elektronikoki identifikatzeko.

Helbide honetan eskuratu daitezke Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoa onartutako identifikazio eta sinadura elektronikorako bitartekoak: <https://www.euskadi.eus/ziurtagiri-elektronikoak>

9.– Laguntza jasotzeko eskabidea nahi den hizkuntza ofizialean aurkeztu ahal izango da, eskatutako dokumentazioarekin batera.

10.– Eskarera aurkezteak esan nahi du deialdi honen oinarriek zehazten dituzten baldintzak berariaz eta formalki onartzen direla.

4. artikulua.– Eskabidearen edukia eta aurkeztu beharreko agiriak.

1.– I. eranskinaren arabera eredu normalizatuko eskabide-orka osorik bete behar du erakunde eskatzaileak, telematikoki; eskabidea aurkezteko behar diren erakunde eskatzailearen datu orokorrak jasoko ditu eskabide-orkak. Halaber, eskabideak erantzukizunpeko aitortpen hauek jasoko ditu:

a) Dirulaguntza jasotzeko baldintzak betetzen dituela eta hori frogatzeko dokumentazioa duela; dokumentazio hori Administrazioaren eskura jarriko duela, eskatzen zaionean; eskabidea aitortzen zaion bitartean baldintza horiek betetzeko konpromisoa hartzen duela; funtsezko zehaztasunik ezak, faltsukeriak edo ez-egiteak erantzukizun penalak, zibilak edo administratiboak izan ditza-keela; eta Administrazioak egiaztatzeko, kontrolatzeko eta ikuskatzeko eskumena duela.

b) Konpromisoa hartzen duela jakinarazteko helburu bererako dirulaguntzak, laguntzak, diru-sarrerak edo beste baliabide batzuk eskatu eta, hala badagokio, jaso dituela, edozein administrazioetatik edo erakunde publiko zein pribatutatik etorriak direla ere.

c) Konpromisoa hartzen duela jakinarazteko ea sartuta dagoen Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak, haren erakunde autonomoek eta bestelako entitateek emandako izaera bereko laguntzen edo dirulaguntzen esparruan hasi den eta oraindik izapidetzen ari den itzultze- edo zehapen-prozedura batean.

d) Ez dagoela sartuta Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 13.2 eta 13.3 artikuluetan aurreikusitako inolako debeku-egoeratan.

e) Ez zaiola ezarri laguntza eta dirulaguntza publikoak eskuratzeko eragozten dion zehapenik, ez administrazio-arlokorik, ez zigor-bidekorik, eta ez duela halakorik eskuratzeko legeko debekurik (ildo horretatik, kontuan izan behar dira Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legean sexuaren ziozko bereizkeria zehatzeko ezarritako zigor eta debekuak).

f) Ez dagoela laguntzak berreskuratzeko ezein aginduren pean, Europako Batzordeak aurretiaz hartutako erabaki baten bidez laguntza bat lege kanpoko zatia eta barne-merkatuarekin bateraezintzat jo ondoren.

g) Konpromisoa hartzen duela jakinarazteko minimis erregimenari lotutako laguntzak lortu dituela, Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuaren 107. eta 108. artikulua 2020ko, 2021eko eta 2022ko zerga-ekitaldietan minimis laguntzei aplikatzeari buruzko 2013ko abenduaren 18ko Batzordearen 1407/2013 (EB) Erregelamenduaren arabera.

2.– Eskabidearekin batera, honako dokumentu hauek aurkeztu behar dira:

a) Erakundean kontratatutako (gutxienez) hiru pertsonaren lan-kontratuen kopia digitalizatua.

b) Ez da beharrezkoa izango entitate eskatzaileek inskripzioa Euskal Autonomia Erkidegoko Garapenerako Lankidetzako Eragileen Erregistroan aurkeztea, baldin eta Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziari baimena ematen badiote eskumena duen administrazioan ofizioz begiratu, ziurtatu edo egiaztatzeko.

3.– Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziak ofizioz egiaztatuko du zerga-betebeharrak eta gizarte-segurantzarekikoak betetzen dituen, datu-bitartekaritarako plataformei edo horretarako gaitutako beste sistema elektronikoko batzuei kontsulta eginez.

Hala ere, pertsona edo entitate eskatzaileak espresuki egin diezaioke uko egiaztatze horri, eta, hala eginez gero, dagozkion egiaztagiria aurkeztu beharko ditu.

4.– Eskabideak baloratzeko, entitate eskatzaileak honako dokumentazio hau aurkeztu ahal izango du:

a) Eskabidea generoaren partaidetza-diagnostikoa egiteko eta genero-berdintasunaren aldeko ekintza-plan estrategikoa prestatzeko aurkezten baldin bada:

– Proposamen teknikoa, II. eranskin gisa argitaratutako eredu normalizatuaren arabera.

– Aurrekontua, III. eranskin gisa argitaratutako eredu normalizatuaren arabera.

– Genero-egituren egokitasuna baloratzeko: curriculum vitae eta genero-erreferentia den pertsonaren esperientzia eta prestakuntza egiaztatzen duen kanpo-egiaztagiria, bai eta genero-erreferentia den pertsonaren kontratua ere.

– Kanpoko dinamizazioa egiten duen pertsonaren edo pertsonen egokitasuna balioesteko: curriculum vitae eta dinamizazioa egiten duen pertsonaren edo pertsonen egokitasuna egiaztatzen duen kanpo-egiaztagiria.

b) Eskabidea genero-berdintasunaren aldeko ekintza-plan estrategikoa prestatzeko aurkezten baldin bada:

– Proposamen teknikoa, II. eranskin gisa argitaratutako eredu normalizatuaren arabera.

– Aurrekontua, III. eranskin gisa argitaratutako eredu normalizatuaren arabera.

– Generoaren partaidetza-diagnostikoa, martxoaren 27ko 40/2018 Dekretuaren 3.a artikuluan ezarritako betekizunekin bat datorrena. Dekretu horrek lankidetzako erakundeei eman beharreko laguntzak arautzen ditu, erakundeetan genero-berdintasunaren aldeko erakunde-aldaketako prozesuak sustatzeko.

– Genero-egituren egokitasuna baloratzeko: curriculum vitae eta genero-erreferentia den pertsonaren esperientzia eta prestakuntza egiaztatzen duen kanpo-egiaztagiria, bai eta genero-erreferentia den pertsonaren kontratua ere.

– Kanpoko dinamizazioa egiten duen pertsonaren edo pertsonen egokitasuna balioesteko: curriculum vitae eta dinamizazioa egiten duen pertsonaren edo pertsonen egokitasuna egiaztatzen duen kanpo-egiaztagiria.

c) Eskabidea genero-berdintasunaren aldeko ekintza-plan estrategikoa osorik edo zati batean ezartzeko eta ondoren ebaluatzeko aurkezten baldin bada:

– Proposamen teknikoa, II. eranskin gisa argitaratutako eredu normalizatuaren arabera.

– Aurrekontua, III. eranskin gisa argitaratutako eredu normalizatuaren arabera.

– Genero-berdintasunaren aldeko ekintza-plan estrategikoa, martxoaren 27ko 40/2018 Dekretuaren 3.b artikuluan ezarritako betekizunekin bat datorrena. Dekretu horrek lankidetzarako erakundeei eman beharreko laguntzak arautzen ditu, erakundeetan genero-berdintasunaren aldeko erakunde-aldaketako prozesuak sustatzeko.

– Genero-egituren egokitasuna balioesteko: curriculum vitae eta dinamizazioa egiten duen pertsonaren edo pertsonen egokitasuna egiaztatzen duen kanpo-egiaztagiria.

– Kanpoko dinamizazioa egiten duen pertsonaren edo pertsonen egokitasuna balioesteko: curriculum vitae eta dinamizazioa egiten duen pertsonaren edo pertsonen egokitasuna egiaztatzen duen kanpo-egiaztagiria.

d) Genero-berdintasunaren aldeko ekintza-plan estrategikoaren ezarpena ebaluatzea: 7.000 euro.

– Proposamen teknikoa, II. eranskin gisa argitaratutako eredu normalizatuaren arabera.

– Aurrekontua, III. eranskin gisa argitaratutako eredu normalizatuaren arabera.

– Genero-berdintasunaren aldeko ekintza-plan estrategikoa, martxoaren 27ko 40/2018 Dekretuaren 3.b artikuluan ezarritako betekizunekin bat datorrena. Dekretu horrek lankidetzarako erakundeei eman beharreko laguntzak arautzen ditu, erakundeetan genero-berdintasunaren aldeko erakunde-aldaketako prozesuak sustatzeko.

– Genero-berdintasunaren aldeko ekintza-plan estrategikoaren ezarpenari buruzko txostena, martxoaren 27ko 40/2018 Dekretuaren 3.c artikuluan ezarritako betekizunekin bat datorrena. Dekretu horrek lankidetzarako erakundeei eman beharreko laguntzak arautzen ditu, erakundeetan genero-berdintasunaren aldeko erakunde-aldaketako prozesuak sustatzeko.

– Kanpoko dinamizazioa egiten duen pertsonaren edo pertsonen egokitasuna balioesteko: curriculum vitae eta dinamizazioa egiten duen pertsonaren edo pertsonen egokitasuna egiaztatzen duen kanpo-egiaztagiria.

5.– Hizkera ez-sexista erabili beharko da diruz lagundutako prozesuan zehar sortutako dokumentu guztietan, bai eta egiten diren memoria eta txostenetan ere.

6.– Erakunde eskatzaileak berdintasunaren aldeko antolamendu-aldaketako prozesuan parte hartu duela jakinaraziko du.

7.– Diruz lagundutako prozesuari kanpo-ebaluazioa egin ahal izango zaio, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziak sustatuta.

5. artikulua.– Hautaketa Batzordea.

1.– Eskabideak baloratuko dituen Hautaketa Batzordea honako pertsona hauek osatuko dute:

– Batzordeburua: Alazne Camiña Izkara andrea, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren Koordinazio Teknikoko arduraduna.

– Batzordekidea: Ana Rojo González andrea, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziako Aholkularitza Juridikoko arduraduna.

– Batzordekidea eta idazkaria: Edurne Bengoechea Sorozabal andrea, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziako genero arloko programetako teknikaria.

2.– Hautaketa Batzordeko titularren baten postua hutsik badago, titularra kanpoan edo gaixorik badago edo legezko beste arrazoiren bat gertatzen bada, titularrak ordeztu ahal izango dira, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian ebazpena argitaratu ondoren.

3.– Hautaketa Batzordeak, behar izanez gero, teknikari espezialisten laguntza izan dezake. Teknikari horiek batzordean hitz egiteko eskubidea izango dute, baina botoa emateko eskubiderik ez.

6. artikulua.– Balorazio-irizpideak.

Balorazio-irizpideak martxoaren 27ko 40/2018 Dekretuaren 16. artikuluan aurreikusitakoak dira (40/2018 Dekretua, martxoaren 27koa, lankidetz-erakundeei aldaketa-prozesuak sustatzeko ematen zaizkien laguntzak arautzen dituena).

7. artikulua.– Ebazpena.

Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testu bategina onartzen duen azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuaren 51.9 artikularekin bat, eskabidea aurkeztu zenetik sei hilabeteko epea igaro ondoren, berariazko ebazpenik jakinarazi ez bada, eskabidea ezetsizat joko da.

XEDAPEN GEHIGARRIA

Garapenerako lankidetzaren kargurako proiektuetarako laguntzak arautzen dituen uztailaren 23ko 390/2013 Dekretuak aldatzen duen otsailaren 27ko 34/2007 Dekretuaren 23.4 artikuludioenez, entitate eskatzaile bakoitzak gehienez eskura dezakeen dirulaguntzaren guztizko zenbatekoa zehaztuko da dagokion ekitaldian onartzen den lehenengo laguntza-deialdian.

Hori kontuan izanik, 2022ko aurrekontu-ekitaldian ematen diren dirulaguntza guztien % 7koa izango da entitate eskatzaile bakoitzak gehienez eskura dezakeen dirulaguntzaren guztizko zenbatekoa. Hau da, 2.989.000 euro, garapenerako lankidetzaren kargura urtean onartzen diren laguntzen edozein deialditan; dirulaguntza horiek geroago ordaindu litezke, aurreragoko ekitaldietan.

AZKEN XEDAPENETAKO LEHENENGOA

Genero-berdintasunaren aldeko antolaketa-aldaketako prozesuak bultzatzeko lankidetz-erakundeei eman beharreko laguntzak arautzen dituen martxoaren 27ko 40/2018 Dekretuan ezarritakoaz gain, ebazpen honek hizpide dituen dirulaguntzek honako hauek xedatutakoa dute oinarri: Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legea; Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legea; Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testu bategina onartzen duen azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako

2022ko irailaren 21a, asteazkena

Dekretuaren testuaren VI. titulua eta VII. tituluko III. kapitulua; eta Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrean eta Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren Erregelamendua onartzen duen uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuan jasotako oinarrizko araudia.

AZKEN XEDAPENETAKO BIGARRENA

Ebazpen honek ez dio amaiera ematen administrazio-bideari, eta, beraren aurka, gora jotzeko errekurtsua aurkeztu ahal izango zaio Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziako lehendakariari, hilabeteko epean, ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik hasita.

AZKEN XEDAPENENETAKO HIRUGARRENA

Ebazpen honek Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera izango ditu ondorioak.

Vitoria-Gasteiz, 2022ko uztailaren 29a.

Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziako zuzendaria,
PAUL ORTEGA ETCHEVERRY.

2022ko irailaren 21a, asteazkena

I. ERANSKINA

ESKAERA-INPRIMAKIA

GENERO-BERDINTASUNAREN ALDEKO ANTOLAKETA-ALDAKETAKO PROZESUAK

I. eranskin hau deialdi-ebazpenari erantsi zaio, eskabide normalizatuaren edukiaren berri emateko soilik. Finantzaketa genero ekitatearen aldeko prozesurako laguntza eskatu nahi duen entitateak ez du eranskin hau erantsi beharko; aitzitik, telematikoki bete beharko du, www.euskadi.eus webgunearen bidez, «Laguntzak eta dirulaguntzak» atalean, edo www.elankidetza.euskadi.eus webgunearen bidez, «Laguntzak, bekak eta saria» atalean.

Izartxoak (*) duten eremuak nahitaez bete behar dira.

Hartzailea:

Erakundea: BESTE ERAKUNDEAK - GARAPENERAKO LANKIDETZAREN EUSKAL AGENTZIA

Instrukzio-organoa: GARAPENERAKO LANKIDETZAREN EUSKAL AGENTZIAKO ZUZENDARITZA

DATU PERTSONALAK**Eskatzailea:**

Honela jarduten du Espedientean interesa duen pertsona/erakunde gisa: Honako honen ordezkari gisa:

Identifikazio-dokumentua	Zenbakia	Izena	Lehenengo abizena	Bigarren abizena	Sexua

JAKINARAZPENETARAKO DATUAK**Jakinarazpenak eta komunikazioak helbide honetara bidaliko dira:**

Espedientea izapidetzen ari den bitartean, Administrazioak honi bidaliko dizkio jakinarazpenak:

PROIEKTUAREN DATUAK**Laguntza-mota**

GBA programa BA Ierroa

Laguntza zer dirulaguntza linearen motarako eskatzen den:

- Generoaren partaidetza-diagnostikoa eta Genero-berdintasunaren aldeko Ekintza Plan Estrategikoa egitea.
- Genero-berdintasunaren aldeko Ekintza Plan Estrategikoa egitea.
- Genero-berdintasunaren aldeko Ekintza Plan Estrategikoaren implementazioa eta ondorengo ebaluazioa.
- Genero-berdintasunaren aldeko Ekintza Plan Estrategikoaren implementazioa ebaluatzea.

2022ko irailaren 21a, asteazkena

Entitate eskatzailearen datu fiskalak dituen lurraldea/probintzia

Lurraldea/probintzia * Hautatu aukera

Araba
 Bizkaia
 Gipuzkoa
 Beste probintzia bat

Erakunde eskatzailearen datuak

Kod. eragileen erreg.	Izena	IFZ	Erregistroa	Erregistro-data

Erreferentziazko pertsonaren datuak

Izena *

Lehenengo abizena *

Bigarren abizena

Lanpostua eta kargua

Telefonoa *

Helbide elektronikoa *

Prozesuaren talde dinamizatzailearen osaera

Kanpo-dinamizatzaile gisa proposatutako pertsona fisiko edo juridikoa(k): *

Erakunde eskatzailearen genero-erreferentzia gisa izendatutako pertsona: *

Erakunde eskatzailearen genero barne-taldeko kide diren pertsonak (izena eta kargua)

Izena	Postu/kargua

Proiektua

Proiektuaren izena *

Proiektuaren laburpena (4-8 lerro bitartean) *

Proiektuaren iraupena

Aurreikusitako hasiera-data*

Zenbat hilabetetan gauzatuko den *

Proiektuaren finantzaketa

Eskatutako diru-laguntza (euroak)*

DATU OSAGARRIAK**Erakunde eskatzailearen inguruko beste datu batzuk**

Bazkide-kopurua Euskal Autonomia Erkidegoan:

Emakumeak * Gizonak * Ez-bitarrak * Guztira *

Boluntario-kopurua Euskal Autonomia Erkidegoan:

Emakumeak * Gizonak * Ez-bitarrak * Guztira *

Langile-kopurua Euskal Autonomia Erkidegoan

Emakumeak * Gizonak * Ez-bitarrak * Guztira *

Zuzendaritza Batzordeko/Patronatuko kide diren pertsonen kopurua:

Emakumeak * Gizonak * Ez-bitarrak * Guztira *

ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENAK

Entitate eskatzaileak adierazten du dirulaguntza jasotzeko baldintzak betetzen dituela eta hori frogatzeko dokumentazioa duela; dokumentazio hori Administrazioaren eskura jarriko duela, eskatzen zaionean; eskubidea aitortzen zaion bitartean baldintza horiek betetzeko konpromisoa hartzen duela; funtsezko zehaztasunik ezak, faltsukeriak edo ez-egiteak erantzukizun penalak, zibilak edo administratiboak izan ditzakeela; eta Administrazioak egiaztatzeko, kontrolatzeko eta ikuskatzeko eskumena duela.

Erakunde eskatzailearen erantzukizunpeko adierazpenak

1. Beste edozein administrazio edo erakunde publiko nahiz pribatutatik helburu eta xede bererako beste dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabide batzuk eskatu edo jasotzea.
- Bai, eskatu edo lortu du (sartu datuak zabalduko taulan eta partiden arabera xehetasunak deialdiaren ebazpenean III. eranskin gisa jasotzen den aurrekontu banakatuan).

Entitatea	Zenbatekoa	Estatua: eskatua edo eskuratua

- Ez du eskatu, ez lortu.
2. Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak, bere erakunde autonomoek eta bere sektore publikoko beste erakunde batzuek emandako izaera bereko laguntza edo dirulaguntzen esparruan hasitako itzultze- edo zehapen-prozeduraren batean sartuta badago.

Prozedura / Instantzia kudeatzailea

Prozedura	Instantzia kudeatzailea

3. Ez dago Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 13.2 eta 13.3 artikuluetan jasotako debeku baten eraginpean.
4. Ez du laguntza edo dirulaguntza publikoak eskuratzea eragozten duen zehapen administratiborik edo penalik, eta ez du laguntza edo dirulaguntza horiek jasotzeko legezko debekurik, Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen arabera sexuaren ziozko bereizkeria egiteagatik gerora sortutakoak barne.

2022ko irailaren 21a, asteazkena

- 5. Ez dago laguntzak berreskuratzeko emateke dagoen agindu baten eraginpean, Europako Batzordeak, aldez aurretik, laguntza bat legez kanpokotzat eta barne-merkatuarekiko bateraezintzat jotzeko erabaki bat eman ondoren.
- 6. Bai, -minimis- araubidearen eraginpeko laguntzak jaso ditu, 2020ko, 2021eko eta 2022ko zerga-ekitaldietan Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Itunaren 107. eta 108. artikulua minimis laguntzei ezartzeari buruzko 2013ko abenduaren 18ko Batzordearen 1407/2013 Erregelamenduaren arabera (EB).

Entitate emailea	Zenbatekoa

EGIAZTAPENA

Entitate eskatzaileak ez badu baimenik ematen ofiziozko egiaztapenen bat egiteko, dagokion dokumentazioa aurkeztu beharko du.

Aplikatu beharreko araudiari jarraituz, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziak entitate eskatzailearen/partzuergo-buruaren honako datu hauek ofizioz egiaztatuko ditu administrazio eskudunean:

Legezko ordezkartzaren egiaztapena

□ Entitate eskatzaileak baimena ematen dio deialdi honen organo kudeatzaileari administrazio eskudunean egiaztatu, jaso edo egiaztatzeko, baliabide telematikoen bidez edo, hala badagokio, legezko ordezkartzaren egiaztagiria eskura duten baliabideen bidez.

Euskal Autonomia Erkidegoko Garapenerako Lankidetzako Agenteen Erregistroan izena eman izanaren egiaztagiria

□ Erakunde eskatzaileak baimena ematen dio deialdi honen organo kudeatzaileari administrazio eskudunean bitarteko telematikoen bidez edo, hala badagokio, Euskal Autonomia Erkidegoko Garapenerako Lankidetzako Agenteen Erregistroan izena emanda dagoela egiaztatzeko.

Datuen babesari buruzko oinarrizko informazioa

Eskabidean ageri diren datu pertsonalak «Garapenerako lankidetzako laguntzak eta dirulaguntzak» izeneko tratamendu-jardueran sartu eta tratatuko dira.

- **Arduraduna:** Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentzia.
- **Helburua:** GARAPENERAKO LANKIDETZAREN ARLOKO LAGUNTZAK, DIRULAGUNTZAK ETA BEKAK KUDEATZEA.
- **Legitimazioa:**
 - Tratamendua beharrezkoa da interes publikoaren izenean misio bat egiteko edo tratamenduaren arduradunari aitortzen zaizkion botere publikoak egikaritzeko.
- **Hartzaileak:**
 - Ogasun publikoa eta zerga-administrazioa.
 - Gizarte Segurantzako erakundeak.
 - EUSKAL HERRIKO AGINTARITZAREN ALDIZKARIAN KOOPERANTEEN ETA BEKADUNEN IZEN-ABIZENAK ARGITARATZEA.
- **Eskubideak:** Datuak eskuratu, zuzendu eta deuseztatzeko eskubideak dituzu, bai eta informazio gehigarrian adierazten diren beste eskubide batzuk ere.
- **Informazio osagarria:** Gure webgunean kontsultatu dezakezu datuen babesari buruzko informazio gehigarria eta zehatza (<https://www.euskadi.eus/informazio-klausulak/web01-sedepd/eu/gardentasuna/019500-cap2-eu.shtml>).

Araudia:

Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorra
(eur-lex.europa.eu/legal-content/ES/TXT/HTML/?uri=CELEX:32016R0679&from=ES).
3/2018 Lege Organikoa, abenduaren 5ekoa, Datu Pertsonalak Babestekoa eta Eskubide Digitalak Bermatzekoa (https://www.boe.es/boe_euskera/dias/2018/12/06/pdfs/BOE-A-2018-16673-E.pdf).

Aurkeztu beharreko agiriak

Agiriak euskara edo gaztelania ez beste hizkuntza batean baldin badaude, horiekin batera gaztelaniarako eta/edo euskararako itzulpena aurkeztu beharko da, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 15. artikuluan xedatutakoari jarraituz.

AGIRIAK ERANSTEA**Ofiziotzko egiaztapena**

Aplikatzekoa den araudiaren arabera, prozedura hau bideratzen duen organoak **ofizioz egiaztatuko ditu**, dagokion administrazioan, honako datu hauek:

- ✓ Gizarte Segurantzaren ordainketa egunean dagoen (GSDN-Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusia)
- ✓ Zerga-betebeharrak egunean dauden (EAEko foru-aldundiak edo Estatuko Zerga Agentzia)

Salbu interesdunak, arrazoiak eman, eta aurka egiten badu. Aurka egiteko eskubidea erabiltzea.

Eskatutako dokumentu motak

Eskatutako dokumentuak	Ekintzak
Proposamen teknikoa	Erantsi/Bilatu/Emana
Aurrekontua	Erantsi/Bilatu/Emana
Proposamen teknikoaren eranskinak	Erantsi/Bilatu/Emana
Entitate eskatzailearen eranskinak	Erantsi/Bilatu/Emana

II. ERANSKINA

PROPOSAMEN TEKNIKOA

**GENEROROAREN PARTAIDETZA-DIAGNOSTIKOA ETA GENERO BERDINTASUNAREN ALDEKO EKINTZA PLAN ESTRATEGIKOA
FINANTZATZEKO PROPOSAMEN TEKNIKOA****1.– Justifikazioa eta espero den inpaktua.**

1.1.– Deskribatu erakundeak genero berdintasunaren arloan aldez aurretik egindako lana eta ekimenak, bai antolaeran eta arlo estrategikoan eta teknikoan, bai emakumeen mugimenduarekiko edo mugimendu feministarekiko aliantzetan.

1.2.– Justifikazioa: azaldu, labur, genero berdintasunaren alde antolaketa-aldaketako prozesuaren finantzaketa eskatzeko arrazoiak.

1.3.– Azaldu, prozesua amaitu ondoren, erakundearen zer helburu espero diren eta aurrerapen lortzea espero den.

1.4.– Deskribatu erakunde eskatzaileak prozesua gizarteratzeko, bai erakundearen barruan bai haren inguruan, abian jarriko duen komunikazio estrategia.

2.– Metodologia parte-hartzailea.

2.1.– Azaldu Generoaren partaidetza-diagnostikoa eta Genero Berdintasunaren aldeko Ekintza Plan Estrategikoa egiteko prozesuan erabiliko den metodologia eta abian jarriko diren neurriak. Bereziki argudiatuko da horien izaera parte hartzailea.

2.2.– Justifikatu nola lortu nahi diren parte hartze kuota handiak erakundearen, prozesuaren fase guztietan, lehen aipatutako metodologiak erabilita. Azaldu prozesuan parte hartzeko erakundearen dauden konpromisoak, nola termino kuantitatiboetan hala kualitatiboetan.

3.– Genero egiturak.

3.1.– Deskribatu eta egiaztatu erakundearen prozesuan erreferente izango den pertsonaren esperientzia eta haren prestakuntza berdintasunean, generoan eta garapenean, eta genero zeharkakotasunean, horretarako beharrezkotzat jotzen den dokumentazioa aurkeztuz.

3.2.– Deskribatu erakundearen barruan prozesua bultzatuko duen genero taldearen osaera. Taldeak erakundearen arlo guztiak ordezkatu beharko ditu.

3.3.– Deskribatu pertsona erreferentearen, barneko genero-taldearen eta prozesuan parte hartuko duten erakundeko langileen eginkizunen liberazio-sistema espezifiko eta zehatza (ordu kopurua, erantzukizunak).

4.– Diagnostikoa egin eta Plana prestatzeko kanpo-laguntza egiten duen pertsonaren edo pertsonen egokitasuna justifikatzea, horretarako beharrezkotzat jotzen den dokumentazioa aurkeztuz.

5.– Laneko plana.

5.1.– Nola lortuko da, diagnostikoaren fasean, 40/2018 Dekretuak, martxoaren 27koak, zeinaren bidez arautzen baitira genero-berdintasunaren aldeko antolaketa-aldaketako prozesuak bultzatzeko lankidetzaren erakundeei eman beharreko laguntzak, definitutako zortzi alorrei buruzko informazioa? Zehaztu horretarako beharko diren langileak, baliabide teknikoak eta materialak.

5.2.– Nola egingo da Genero Berdintasunaren Aldeko Ekintza Plana? Zehaztu horretarako beharko diren langileak, baliabide teknikoak eta materialak.

5.3.– Kronograma: deskribatu, ahalik eta xehetasun gehien emanaz, Generoaren partaidetza-diagnostikoa eta Ekintza Plana egiteko prozesuan aurreikusitako faseak eta ekimenak.

6.– Jarraipen-sistema.

Azaldu zer jarraipen-mekanismo aurreikusten diren prozesuan ezarritako helburuak lortzen ari direla bermatzeko.

GENERO-BERDINTASUNAREN ALDEKO EKINTZA PLAN ESTRATEGIKOA FINANTZATZEKO PROPOSAMEN TEKNIKOA

1.– Justifikazioa eta espero den inpaktua.

1.1.– Deskribatu erakundeak genero-berdintasunaren arloan aldeaz aurretik egindako lana eta ekimenak, bai antolakeran eta arlo estrategikoan eta teknikoan, bai emakumeen mugimenduarekiko edo mugimendu feministarekiko aliantzetan.

1.2.– Justifikazioa: azaldu, labur, genero-berdintasunaren alde antolakeratik aldaketako prozesuaren finantzaketa eskatzeko arrazoiak.

1.3.– Azaldu, prozesua amaitu ondoren, erakundeaz zer helburu espero diren eta zer aurrerapen lortzea espero den.

1.4.– Deskribatu erakunde eskatzaileak prozesua gizarteratzeko, bai erakundearen barruan bai haren ingurunean, abian jarriko duen komunikazio estrategia.

2.– Generoaren partaidetza-diagnostikoa.

2.1.– Aurkeztu, labur, Generoaren partaidetza-diagnostikoan garrantzitsutzat hartzen den informazioa, 40/2018 Dekretuak, martxoaren 27koak, zeinaren bidez arautzen baitira genero-berdintasunaren aldeko antolakeratik aldaketako prozesuak bultzatzeko lankidetzaren erakundeak eman beharreko laguntzak, zehaztutako zortzi alorretan (Politikak; Berdintasunaren alde aurretik egindako lan-ibilbidea; Antolakeratik kultura; Lanaren barne prozesuak; Erabakiak hartzea; Komunikazioa eta ikaskuntza; Pertsonak kudeatzea; Jarrerak).

2.2.– Zer metodologia erabili dira hura egiteko? Azpimarratu bereziki metodologia parte-hartzaileak.

2.3.– Nola lortu dira erakundeko langileen partaidetza-kuota handiak diagnostikoa egiteko prozesuan?

3.– Metodologia parte-hartzailea.

3.1.– Azaldu Genero Berdintasunaren Aldeko Ekintza Plan Estrategikoa prestatzeko prozesuan erabiliko den metodologia eta abian jarriko diren neurriak. Bereziki argudiatuko da haien izaera parte-hartzailea.

3.2.– Justifikatu nola eutsi nahi zaien erakundearen partaidetza-kuotei Berdintasunaren Aldeko Ekintza Plan Estrategikoa egiteko fasean, lehendik aipatutako metodologia erabilia. Azaldu prozesuan parte hartzeko erakundean dauden konpromisoak, nola termino kuantitatiboetan hala kualitatiboetan.

4.– Genero-egiturak.

4.1.– Deskribatu eta egiaztatu erakundean prozesuan erreferente izango den pertsonaren esperientzia eta haren prestakuntza berdintasunean, generoan eta garapenean, eta genero zeharkakotasunean, horretarako beharrezkotzat jotzen den dokumentazioa aurkeztuz.

4.2.– Deskribatu erakundearen barruan prozesua bultzatuko duen genero-taldearen osaera. Taldeak erakundeko arlo guztiak ordezkatu beharko ditu.

4.3.– Deskribatu pertsona erreferentearen, barneko genero-taldearen eta prozesuan parte hartuko duten erakundeko langileen eginkizunen liberazio-sistema espezifiko eta zehatza (ordu-kopurua, erantzukizunak).

5.– Justifikatu Plana egiteko proposatutako kanpo-laguntza egiten duen pertsonaren edo pertsonen egokitasuna, horretarako beharrezkotzat jotzen den dokumentazioa aurkeztuz.

6.– Laneko plana.

6.1.– Nola bermatu nahi da, aurreikusitako laneko planaren bidez, genero berdintasunaren alde jasotako ekintzak orientatuta egotea diagnostikoan hautemandako genero desberdintasunak ezabatzeraz, genero zeharkakotasuna garatzeraz eta erakundeko emakumeen ahalduntzeraz?

6.2.– Zehaztu proposamena aurrera eramateko beharko diren langileak, baliabide teknikoak eta materialak.

6.3.– Kronograma: deskribatu, ahalik eta xehetasun gehien emanaz, Ekintza Plana egiteko prozesuan aurreikusitako jarduerak.

7.– Jarraipen-sistema.

Azaldu zer jarraipen-mekanismo aurreikusten diren prozesuan ezarritako helburuak lortzen ari direla bermatzeko.

**GENERO BERDINTASUNAREN ALDEKO EKINTZA PLAN ESTRATEGIKOAREN
INPLEMENTAZIOA ETA HAREN EBALUAZIOA FINANTZATZEKO PROPOSAMEN TEKNIKOA****1.– Justifikazioa eta espero den inpaktua.**

1.1.– Deskribatu erakundeak genero-berdintasunaren arloan aldez aurretik egindako lana eta ekimenak, bai antolaeran eta arlo estrategikoan eta teknikoan, bai emakumeen mugimenduarekiko edo mugimendu feministarekiko aliantzetan.

1.2.– Deskribatu Planaren Inplementazioaren aurreko faseak, hala nola Generoaren partaidetza-diagnostikoa eta Genero Berdintasunaren Aldeko Ekintza Plan Estrategikoa. Egindako jarduerak; erabilitako metodologia eta neurriak; erakundeko langileen partaidetza mailak; sortutako zailtasunak eta konponbide alternatiboak edo proposamenak; behatutako erresistentziak; Genero Berdintasunaren Aldeko Ekintza Planaren etorkizuneko inplementazioan sor daitezkeen aliantzak, aukerak eta oztopoak.

1.2'.– Genero Berdintasunaren Aldeko Ekintza Planaren inplementazioa martxan egonez gero, deskribatuko dira oro har: egindako ekintzak, lortutako helburuak eta emaitzak.

1.3.– Justifikatu diruz lagunduta finantzatu nahi diren ekintzak, eta azaldu nola erantzuten dieten diagnostikoan hautemandako desberdintasunei eta nola bultzatzen duten genero zeharkakotasuna eta emakumeen ahalduntzea erakundearen barruan. Jarduera bat edo batzuk bideratzeko kanpo-laguntza eskatuz gero, justifikatu haren beharra eta egokitasuna.

1.4.– Deskribatu, oro har, ebaluazioa, lortu beharreko emaitzen maila, erabili beharreko metodologia, kanpo-laguntzari eskatutako esperientzia.

1.5.– Azaldu, prozesua amaitu ondoren, erakundearen zer helburu espero diren eta zer aurrerapen lortzea espero den.

1.6.– Deskribatu erakunde eskatzaileak prozesua gizarteratzeko, bai erakundearen barruan bai haren ingurunean, abian jarriko duen komunikazio estrategia.

2.– Metodologia parte-hartzailea.

2.1.– Azaldu zer metodologia erabili eta neurri ezarriko diren Genero Berdintasunaren Aldeko Ekintza Plan Estrategikoaren inplementazio-fasean.

2.2.– Justifikatu nola lortu nahi diren partaidetza-kuota handiak erakundeetan, Genero Berdintasunaren Aldeko Ekintza Plan Estrategikoaren inplementazio-fasean. Azaldu prozesuan parte hartzeko erakundeetan dauden konpromisoak, nola termino kuantitatiboetan hala kualitatiboetan.

3.– Genero-egiturak.

3.1.– Deskribatu eta egiaztatu erakundeetan prozesuan erreferente izango den pertsonaren esperientzia eta haren prestakuntza berdintasunean, generoan eta garapenean, eta genero- zeharkakotasunean, horretarako beharrezkotzat jotzen den dokumentazioa aurkeztuz.

3.2.– Deskribatu erakundearen barruan prozesua bultzatuko duen barneko genero-taldearen osaera. Taldeak erakundearen arlo guztiak ordezkatzeko ditu.

3.3.– Deskribatu pertsona erreferentearen, genero-taldearen eta prozesuan parte hartuko duten erakundeko langileen eginkizunen liberazio-sistema espezifikoa eta zehatza (ordu-kopurua, erantzukizunak).

4.– Laneko plana.

4.1.– Zehaztu proposamena aurrera eramateko behariko diren langileak, baliabide teknikoak eta materialak.

4.2.– Kronograma: deskribatu, ahalik eta xehetasun gehien emanaz, Genero Berdintasunaren Aldeko Ekintza Plan Estrategikoaren inplementazio-fasean aurreikusten diren eta finantzatzeko eskatzen diren jarduerak.

5.– Planaren inplementazioan laguntzeko proposatutako kanpo-laguntza egiten duen pertsonaren edo pertsonen egokitasuna justifikatzea, horretarako beharrezkotzat jotzen den dokumentazioa aurkeztuz.

6.– Jarraipen-sistema.

Azaldu zer jarraipen-mekanismo aurreikusten diren prozesuan ezarritako helburuak lortzen ari direla bermatzeko.

**GENERO BERDINTASUNAREN ALDEKO EKINTZA PLAN ESTRATEGIKOAREN
IMPLEMENTAZIOAREN EBALUAZIOA FINANTZATZEKO PROPOSAMEN TEKNIKOA****1.– Justifikazioa eta espero den inpaktua.**

1.1.– Deskribatu erakundeak genero-berdintasunaren arloan aldez aurretik egindako lana eta ekimenak, bai antolaeran eta arlo estrategikoan eta teknikoan, bai emakumeen mugimenduarekiko edo mugimendu feministarekiko aliantzetan.

1.2.– Deskribatu Planaren Inplementazioaren Ebaluazioaren aurreko faseak, hala nola Generoaren partaidetza-diagnostikoa egitea, Genero Berdintasunaren Aldeko Ekintza Plan Estrategikoa prestatzea, eta Plana implementatzea. Egindako jarduerak; erabilitako metodologia eta neurriak; erakundeko langileen partaidetza-mailak; sortutako zailtasunak eta konponbide alternatiboak edo proposamenak; behatutako erresistentziak; lortutako helburuak eta emaitzak.

1.3.– Finantzatzeko eskatzen den ebaluazioaren justifikazioa.

1.4.– Deskribatu ebaluazioa egiteko erreferentzia-baldintzak.

1.5.– Azaldu, prozesua amaitu ondoren, erakundean zer helburu espero diren eta zer aurrerapen lortzea espero den.

1.6.– Deskribatu erakunde eskatzaileak prozesuaren emaitzak gizarteratzeko, bai erakundearen barruan bai haren inguruan, abian jarriko duen komunikazio-estrategia.

2.– Metodologia parte-hartzailea.

2.1.– Azaldu zer metodologia erabili eta neurri ezarriko diren Genero Berdintasunaren Aldeko Ekintza Plan Estrategikokoaren inplementazioaren ebaluazio-fasean.

2.2.– Justifikatu nola lortu nahi diren partaidetza-kuota handiak erakundean, Genero Berdintasunaren Aldeko Ekintza Plan Estrategikokoaren inplementazioaren ebaluazio-fasean. Azaldu prozesuan parte hartzeko erakundean dauden konpromisoak, nola termino kuantitatiboetan hala kualitatiboetan.

2022ko irailaren 21a, asteazkena

3.– Ebaluazioa egiteko proposatutako ebaluatzailearen edo ebaluatzaileen egokitasuna justifikatzea, horretarako beharrezkotzat jotzen den dokumentazioa aurkeztuz.

4.– Laneko plana.

4.1.– Zehaztu proposamena aurrera eramateko beharko diren langileak, baliabide teknikoak eta materialak.

4.2.– Kronograma: deskribatu, ahalik eta xehetasun gehien emanaz, Genero Berdintasunaren Aldeko Ekintza Plan Estrategikoaren inplementazioaren ebaluazio-fasean aurreikusten diren eta finantzatzeko eskatu diren jarduerak.

5.– Jarraipen-sistema.

Azaldu zer jarraipen-mekanismo aurreikusten diren prozesuan ezarritako helburuak lortzen ari direla bermatzeko.

2022ko irailaren 21a, asteazkena

III. ERANSKINA

PROIEKTUAREN AURREKONTU OROKORRA EUROTAN				
PARTIDAK	GLEA	Euskal Erakunde Eskatzailea	Beste diru-ekarpenak	GUZTIRA
ZUZENEKO KOSTUAK				
A.I. Diagnostikoa bideratzeko zerbitzuak	0,00	0,00	0,00	0,00
A.II. Plana bideratzeko zerbitzuak	0,00	0,00	0,00	0,00
A.III. Antolaketa-aldaketaren prozesuko pertsona erreferentearen kostu laboralak	0,00	0,00	0,00	0,00
A.IV. Prestakuntza	0,00	0,00	0,00	0,00
A.V. Esperientzia-trukaketan kostuak	0,00	0,00	0,00	0,00
A.VI. Argitalpen eta/edo sistematizaziorako zerbitzuen eta langileen kontratazioa	0,00	0,00	0,00	0,00
A.VII. Ebaluazioa bideratzeko zerbitzuak	0,00	0,00	0,00	0,00
ZUZENEKO KOSTUAK GUZTIRA	0,00	0,00	0,00	0,00
ZEHARKAKO GASTUAK				
Erakunde eskatzailearen gastu administratiboak	0,00	0,00		0,00
ZEHARKAKO GASTUAK GUZTIRA	0,00	0,00		0,00
DENERA	0,00	0,00	0,00	0,00
Gastu guztien ehunekoa	% 0,00	% 0,00	% 0,00	% 0,00

2022ko irailaren 21a, asteazkena

PROIEKTUAREN AURREKONTU BANATUA PARTIDA ETA KONTZEPTUETAN							
KONTZEPTUA	Proforma zk.	UNITATEA	GUZTIRA EUROTAN	GLEA	Euskal Erakunde Eskatzailea	Beste diru-ekarpenak	GUZTIRA
ZUZENEKO KOSTUAK							
A.I. Diagnostikoa bideratzeko zerbitzuak			0,00	0,00	0,00	0,00	0,00
							0,00
							0,00
A.II. Plana bideratzeko zerbitzuak			0,00	0,00	0,00	0,00	0,00
							0,00
							0,00
A.III. Antolaketa-aldaketaren prozesuko pertsona erreferentearen kostu laboralak			0,00	0,00	0,00	0,00	0,00
							0,00
							0,00
A.IV. Prestakuntza			0,00	0,00	0,00	0,00	0,00
							0,00
							0,00
A.V. Esperientzia-trukaketen kostuak			0,00	0,00	0,00	0,00	0,00
							0,00
							0,00
A.VI. Argitalpen eta/edo sistematizaziorako zerbitzuen eta langileen kontratazioa			0,00	0,00	0,00	0,00	0,00
							0,00
							0,00
A.VII. Ebaluazioa bideratzeko zerbitzuak			0,00	0,00	0,00	0,00	0,00
							0,00
							0,00
ZUZENEKO KOSTUAK GUZTIRA			0,00	0,00	0,00	0,00	0,00
ZEHARKAKO KOSTUAK							
Erakunde eskatzailearen gastu administratiboak							0,00
ZEHARKAKO GASTUAK GUZTIRA			0,00	0,00	0,00		0,00
DENERA			0,00	0,00	0,00	0,00	0,00